

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jardueretaz hitz egiten, argi dago gure funtsezko jardueretako bat iragarki erakargarriak egitea izango dela, baino ez hori bakarrik. Funtsezkoa izango da ere bai gure bezeroa nola tratatuko dugun ikustea, hau da, bezeroarekin tratuan hoberenak izaten saiatu behar gara. Adibidez, bezeroak zalantzak baditu eta galderak egiten badizkigu, erantzun azkarrak esperoko ditu eta zalantzak argitzekoak ere bai. Honetaz gain, gure enpresari promozioa egingo diogun modua garrantzitsua izango da oso. Hau da, garrantzitsua da, gure burua beste enpresa batzuei aurkezterako garaian, itxura ona ematea. Adibidez, nahiz eta gure lana oso ondo egin eta langile sutsuak izan, agian gure aurkezteko modua ez bada guztiz onuragarria bezeroentzat, ez gaituzte kontuan hartuko lehentasun bezala.